




Maialen Apezetxea Lujambio



Andre kalia, Andrekale... izenak ezagunak dira herritarren artean, batez ere, jada urtetxo batzuk dituztenen artean. Izan ere, Hernanik bazuen Kaxkoan izen hori zuen kale bat orain urte mordoxka bat. Udal Artxiboan aurkitutako agirietan jartzen duenez, 1896an Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei gomendioa egin zien gaztelania hutsean zeuden kale izenen errotuluak euskaraz ere jartzeko. Horren ondorioz, Hernaniko Udalak bi izen ofizial jarri zizkion kaleari: Andre kalia euskaraz eta Calle Urumea gaztelaniaz. Aldiz, 1902. urtean badirudi "Urumea" izena jartzea adostu zela. Eta, ondorioz, Andre kalia izena desagertu egin zen. Ondoren, 1927an "Padre Cardaberaz" izena eman zitzaion kaleari. Azkenik, 1988an izena euskaratu egin zen: Kardaberaz kalea.

Ofizialki kalearen izenak aldatu baziren ere, sozialki, herritarren artean gaur egun arte iraun dute aipatutako bi izenek; gehienbat familia barruko ahozko transmisioari esker. Gazteen artean, aldiz, izen hauek ez dira oso ezagunak; aipaturiko transmisio hori galduz joan baita.

Baina zer dela eta Andrekale izena? Udal Artxiboko teknikariak haxe ondorioztatu zuen 2008an egindako txostenean: "Consultada la documentación en el Archivo Municipal conservada, deducimos que ANDREKALEA (ANDRE-KALEA) era una denominación popular extendida



entre la población por las singularidades socio-culturales que se daban en la misma (parece ser, así transmitido y recogido oralmente entre la población, era la calle en que llevaban a cabo su "vida social" las mujeres residentes del cuerpo de la villa)".

Honez gain, hainbat herritarrek ere, Nekane Idarreta eta Estitxu Eizagirrek kasu, Andrekale izenaren inguruan ikertu izan dute eta hainbat teoria plazaratu dute:

- Lehen teoria batek dio Kale Nagusian kokatzen zirela denda dotoreak eta apain jantzitako jendea, eta Andrekalen, aldiz, emakumeek lanak egiten zituztela. Halaber, azaltzen dute Hernaniren egiturari bi atariko etxeak direla nagusi. Bi atari izateak indartzen du teoria hori; alegia, herrian "gune publikoa" eta "gune pribatua" bereizita zeudela. Era berean, gaineratzen dute garai batean emakumeek ohitura handia zutela aulkia etxetik jaitsi eta kalean eserita lanak eginez hizketan aritzeko; baita adierazten dute emakumeek kartetan aritzen zirela Andrekalen. Horregatik Urumea kaleko festa antolatzerakoan, ohitura hori berreskuratu dute.

- Bigarren teoria batek dioenez, Andrekalen arropa garbitzaile asko bizi ziren. Aberats jendea etortzen omen zen arropa garbitzaileei beren jantziak uztera, Leokako labaderoan harrikoa egiteko.

- Azken teoria baten arabera, baliteke generoaren araberrako kaleen banaketa bat egotea; hau da, Kale Nagusia gizonetzkoena, Andrekale emakumeena eta Atzieta, animaliena.

Arestian aipatutakoaren ildotik, dokumentu idatzietan ez da izenaren arrazoirik topatu eta beraz, ahozko transmisioa besterik ez da geratzen. Denborak aurrera egin ahala, testigantza horiek urritzen joan dira. Dena den, eta kale izenaren arrazoa bata ala bestea izan, agerikoa da garaiko jendartearen aztarna bizia dela, kale horretan emakumeek izan zuten presentziaren lekuko eta emakumeon historia ezagutu eta azalertzeko bide ematen duena.

Hau guztia jakitun, Hernaniko Berdintasun Kontseiluak gaiari heltzea erabaki zuen. Berdintasun Kontseilua herritarren parte-hartze organoa da, berdintasun arloan interesa eta lan egiteko gogoia duten herritarrez osatua. 2001. urtean sortu zen. Orduetik, hilero bilduz, bertan parte hartzen duten emakumeek zein gizonen proposatutako ekimen eta egitasmoak Berdintasun Arloak bere gain hartu eta martxan jarri izan ditu, nahiz izatez organo ahokularia izan.

Egitasmo horietako bat oroimen historikoaren berreskurapena izan da. Izan ere, historiako liburuei begiratuz gero, ez dirudi emakumeek, kopuruz, biztanleriaren er-



dia izan garenik; emakumeek arlo sozial, ekonomiko eta politikoan egindako ekarpena ez baita inon ageri. Eta emakumeon lana ikustarazteko helburuz, hainbat ikerketa lan jarri izan dute martxan Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak. Horren harira, "Andrekalet" izena errekupeartzeko lanak hasi zituen Berdintasun Kontseiluak, eta hernaniarron historia eta memoria osatzeko bidean urratsak eman zituen.

Urte luzeetako lana izan da Kontseiluarena, organo hau sortu zenetik kalearen izen aldaketaren alde saiakera ugari egin izan baitira, baina 2014. urte arte, aldaketa hau gauzatzea ez da posible izan. Pasa den urtean, berriz ere gaiari tinko heltzea erabaki zen Kontseiluan eta Hernaniko kale izendegia aztertzeari ekin zitzaion. Azterketaren emaitza argia izan zen: Hernaniko kale eta plazen izenetan ez dago berdintasunik. Hernaniko herrian 80 kale eta plaza inguru daude, eta hauetatik 24ek gizon zehatzen izena daramate, besteak beste, Antsoarena anaiak, Elkano, Biteri, Gabriel Celaya, Eduardo Chillida, Iturriaga, Kardaberaz, Karmelo Labaka, Larramendi, Lizeaga, Mañe y Flaquer, Txirrita eta Urbieta. Aldiz, ez dago emakume zehatz bati erreferentzia egiten dion kale ez plaza izenik. Izen femenino guztiak elizkoiak dira: Agustindarrak, Arantzazu, Ave Maria, Madalena, Santa Barbara eta Zikuñagako Ama.

Aldea, beraz, nabaria da. Kale eta plaza izen hauen garrantzia, halaber, ukazina da, nolabait garrantzitsutzat

jotzen ditugunen isla baitira, eta sinbolikoki ere garrantzia hartzen dute. Izan ere, memoriaren gordailu ere bada. Teresa Del Valle antropologoak kale izendegia eta memoriaren garrantzia azpimarratzen ditu. Bere aburuz, "memoria da gizarte batek garrantzitsu jotzen duena eta datozen belaunaldiei transmititu nahi diena; kale izenak, monumentuak eta artearen errepresentazioak hiri batean oso garrantzitsuak dira memoria sortzen dutelako eta adierazten dutelako gizarte batek garrantzitsu jotzen dituenak".

Herriko egoera hau ezagutarazi eta aldatzeko asmoz, kale izendegiaren inguruan egindako lana alderdi politiko ezberdinei, mugimendu feministari eta herriko zenbait eragilerari pasatu zaie; bakoitzarekin bildu eta Andrekaleren gaia mahai gainean ipini dugu. Azkenean, lortu da kalearen izena aldatzea eta 2014ko uztailaren 25eko Osoko Bilkuran aho batez onartzea. Erabaki hau urrats bat izan da hernaniarron historia eta memoria osatzeko bidean, emakumeek Hernaniko herrian izan duten presentzia aitortu eta emakumeen kolektiboa errekonozitzen duelako. Orain arte egindako injustiziarekin bukatzeko bidea jartzen du; historia ofizialean emakumeok eta sektore marjinalak ez baitugu lekurik eduki, eta memoria ofizialean ere gure lekua izan behar baitugu emakumeok, eta zer hobeto "Andre kalea" izena berreskuratzea baino!